Zuri-beltzez errebelatzea

Itziar Nogeras*

Errebelatzea (eta positibatzea) ez da argazkizale guztiek egiten duten aukera. Batzuentzat nahikoa da argazkiak ateratzea, eta horiek laborategiren batera bidaltzea errebelatzera. Beste batzuk nahiago dute argazkia errebelatu eta guzti beraiek egin, argazkiak manipulatzeko aukera handia ematen baitu laborategiak. Nolanahi ere, errebelatzeko asmorik izan gabe ere, prozesu hauen nondik norakoak ezagutzeak argazkietan gerta daitezkeen akatsak ulertzen lagunduko digu.

Zuri-beltzezko pelikula errebelatzea ez da ez konplikatua eta ez garestiegia. Ez da gela berezi edo laborategirik behar; pelikula errebelatzeko potoan sartzeko garaian bakarrik behar da erabateko iluntasuna, eta hori gela ilun batean (gauez bada hobe) edo poltsa opako batean egin daiteke. Erabili behar den tresneria beheko irudian ikus dezakegu.

Errebelatzeko plastikozko potoaren atalak



Errebelatzeko potoak plastikozkoak edo altzairu herdoilgaitzezkoak izan daitezke. Irudikoa plastikozkoa da, atal guztiak plastikozkoak ditu. Hori da gehien erabiltzen dena. Altzairuzkoa garestiago da baina, txikiagoa eta sinpleagoa da eta hobeto garbitu eta azkarrago lehortzen da. Bestela, antzera funtzionatzen dute biek. Plastikozko batzuk pelikularen formatu desberdinetara egokitzen den kiribila daukate.
Poto batzuetan bi pelikula errebelatu ahal izaten dira. Horietan pelikula bakarra erabiltzen ari bagara ere, goraino bete behar dira.

Ekipoa



Hona pausoz pauso pelikula errebelatzeko egin behar duzuna:



Erabateko iluntasunean sartu behar da pelikula errebelatzeko potoan. Horretarako gelako (sukalde edo bainugelako) zirritu guztiak kartoiz edo zapiz ondo estali eta bost bat minutu egon gelan argia itzalita, batere argirik sartzen ez dela ziur egon arte.
Materiala ordena logikoan ipini, gero ilunpetan erraz aurkitu ahal izateko. Behar den materiala: pelikula bere ontzitik ateratzeko tresnak (irekigailua eta goraizeak) eta errebelatzeko poto desmuntatua dira.



Pelikula eta irekigailua hartu eta argia itzali. Txasisaren tapa ireki eta atera pelikularen zati bat feldrozko zirritutik, horren muturra mozteko. Ez da komeni pelikula kolpe batez osorik ateratzea, lurrean arrastaka ibiliko da eta. Kontu handiz eta ertzetatik ibili behar da pelikula, oso erraz hondatzen da eta.



Kiribila hartu, dituen bi hortzak bilatu eta biak parean jarri ondoren, pelikula bertan lotu eta lauzpabost zentimetro arrastatu. Lotuta daukagula, kiribilaren bi aldeak atzera eta aurrera mugitu pelikula guztia kiribilean bildu arte.



Pelikula sartutakoan, moztu horren bukaera txasisetik bereizteko eta bobinatu erabat pelikula. Kiribila potoan sartu eta tapa opakoa jarri.
Une horretan, hermetikoki itxitako ontzian dago pelikula eta argia piz daiteke.



Errebelatzeko bainuak prestatu, hiru dira: errebelatzekoa, gelditzekoa eta finkatzekoa. Bainuak prestatzeko argibideak produktuek berek dakarte. Bainuak 20 °C-tan erabili behar direnez, 20-22 °C-tan dagoen uretan edukitzea komeni da, prozesuan zehar hoztu ez daitezen.

Lehenik, errebelatzeko bainua bota. Tenperatura egokia 20 °C dela kontuan izanik, hasieran 21 °C-tan egon behar du prozesuan zehar pixkat hoztuko baita.
Betetakoan, erlojua martxan jarri.
Errebelatzaile-mota asko dago eta pelikula-mota bakoitzaren arabera aukeratu behar da. Pelikula ertainekin definizio altukoa edo bikor finekoa erabili ohi da.



Potoari goiko tapa jarri eta mahaiaren kontra kolpetxo batzuk eman burbuilik ez sortzeko. Potoa gora eta behera bi aldiz eragin minutu bakoitzeko, errebelatze-denbora amaitu arte (irabiatzeko hagatxoa erabiliz gero, alde batera eta bestera biratu, 8 segundoz minutu erdiro). Denbora baino 15 bat segundo lehenago hustutzen hasi.

Elhuyar

ARGAZKILARITZA



▲ Ondoren, gelditze-bainua sartu (20 °C-tan). Eragin potoari gora eta behera bi aldiz eta minutu t'erdi igarota hustu. (Gelditze-bainuaren ordez ura —20 °C-tan— erabil daiteke, ez bagara oso errebelatzaile aktiboa erabiltzen ari) Erlojua zerora jarri eta finkatze-bainua bota. Erlojua martxan jarri eta, errebelatzailearekin bezala, kolpetxo batzuk eman eta minuturo gora eta behera eragin, dagokion denbora bete arte.



◀ Pelikula finkatu eta gero, tapa opakoa kendu eta iturrian garbitzen jarri. Horretarako gomazko tutua erabil daiteke, hori kiribilaren zentruan sartuz potoaren barruraino iristen da ura. 10 minutu inguru eduki behar da garbitzen. Minuturo eragin eta ura aldatzea komeni da, oso garrantzitsua baita pelikula ondo garbitzea. Uretan egon daitezkeen hondartxoek eta ezpurutasunek pelikula ez hondatzeko ur-iragazkia jarri. Amaieran "humektadore" tanta batzuk erantsi (edo baxera garbitzeko produktuaren zenbait tanta) errazago lehortzeko.



▲ Kontu handiz, pelikula kiribiletik atera pelikula esekitzeko matxardaz eta eseki. Behealdean ere, kontrapisua egiteko, matxarda ipini. Pelikulari soberan duen ura kendu xukatzeko matxardaz, behatzez edo esponja batez (ez marratzeko kontu handi-handiz). Ile-lehorgailuz azkarrago lehor daiteke, beti ere, minimoan, pelikulatik 30 cm-ra eta haren alde distiratsuari zuzenduta.

▲ Pelikula ondo-ondo lehortu eta gero, negatiboak aztertu. Pelikularen ertzek argi-argi egon behar dute, fotograma bakoitzaren zenbakia garbi irakurtzeko eran. Esposizio zuzena izan duen eta egoki errebelatu den negatiboak tonu-sorta zabala erakutsi behar du. Zati batzuk ia ertzak bezain argi eta beste batzuk ilun-ilun, ia beste aldea ikusten uzten ez digutela, azaldu behar dute. Lupaz aztertuz gero, zati ilun eta argienetan xehetasunak ikusi behar dira.



◀ Lehenbailehen gorde behar dira negatiboak, hautsik eta zikinkeriarik har ez dezaten. Horretarako orri berezi batzuk daude, seinakako fotogrametan moztu eta seina kabitzen dira orri bakoitzean (36 fotograma guztira).

* ZETIAZ - Elhuyar